

Artixten Topaketa, izango da gaur, Urbieta kalean. Hernaniko nahiz inguruko jendeak hartuko du parte bertan, "artearen adar desberdinak" lantzen dituen jendea: musika, dantza, pintura, antzerkia... "izen famatua izan ez arren,

beren lanari ordu asko eskaintzen dion jendea" antolatzaileen hitzetan. Festa eguerdiko 12:00etan hasiko da eta iluntzera arte izango da zer ikusi eta entzuna, Urbieta kalean jarriko dituzten hiru eszenatokitian.

"Artearen adar desberdinak" enbor berean bilduko dira gaur Urbieta kalean

ARTIXTEN Topaketa izango da gaur Urbieta kalean, hasi goizean eta iluntzera arte. Norberak bere buruari artista deitzea ez da xamurra izan ohi eta agian horregatik jarri diote Artixta izena Hernani eta inguruko zenbait artista elkartuko dituen egitasmoari. Musikiari izango dira gaur parte hartuko dutenetako asko, normalean gauetan eta leku gordeagoetan beren emanaldiak ematen ohituak. Gaur kalean bertan izango da festa, ikusi nahi duen guztiarentzat. Horrez gain, pintura, dantza... izango dira aukeran.

Hiru gune desberdinetan izango da gaurko festa. Eszenatoki haundia Urbieta kale bukaeran egongo da; Sound System gunea Karobi parean eta hirugarren gunea, kalean.

Hiru gune desberdin

Hiru gune desberdinetan izango da gaurko festa. Eszenatoki haundia Urbieta kale bukaeran (Atsegindegitik begiratuta) jarriko dute. Sound System izena jarri dioten eszenatokia, berriz, Karobi aldera dagoen kioskoan egongo dute. Hor, arbola artean, bada kiosko txiki moduko bat, inoiz gutxi erabili dena. Gaur inauguratzeko aukera izango dute disko jartzaileek. Hirugarren gunea berriz kalean bertan egongo da eta hemen graffitiak, postuak, break dantzariak eta abar izango dira. ||

ARTIXTEN TOPAKETA
Urriak 06, larunbata 11:00-20:00 Urbieta kalea, Hernani
www.ixah.net ixa24@hotmail.com 675 703 276

ESZENATOKI HANDIA	KALEAN ZEHAR	SOUND SYSTEM GUNEA
Morau (kantautorea) Ania (kantautorea) Impio (Black Death Metal) Black Jiko (Reggae)	Dantza garaikidea taldea TTP taldea (musika eta margueren performance) Graffitiak Break dantzariak Portuak	Disko jartzaileen sesioak Reggae Sound Systemak (Jah Inity sound, etab.) Rap abeslariak (Rapaula, Duran, etab.)

design by stamfordhill

Eszenatoki haundia

12:00-13:00 Morau. 13:00 Dantza garaikidea taldea. 17:00-18:00 Black Jiko. 18:00-19:00 Ania. 19:00-20:00 Impio.

Sound System gunea

15:00-16:00 DJ prest. 16:00-17:00 Jah Inity Sound Reggae Sound Systema. 18:00-19:00 Revolutionary Brothers. 19:00-20:00 Rap abeslariak (Rapaula, Duran ea) eta Aritz Sound System.

Kalean zehar

12:30-14:30 TTP taldea. 11:00-20:00 Graffitiak
17:00 Break dantzariak eta Aritz Sound System. Postuak.

«Artearen inguruan gauzak egiten ditugun jendea gune batean elkartzea da helburua»

ARITZ Usandizaga izan da egitasmo hau antolatu eta bultza duena eta Kronikari azaldu dio aspaldi zebilkela horrelako zerbait egiteko asmoa buruan. "Artearen inguruan gauza desberdinak egiten ditugun jendea, bakoitza bere aldetik ibiltzen gara, eta espresatzeko modu desberdinak gune berean elkartu nahi izan ditut. Horrez gain, egunez gauzak egiteko nahia ere bada egitasmo honen atzean".

Jendeari aukera

Zerbait egin nahi duen jendeari eskaintzen zaiona da azpiegitura, kalean gauzak egiteko: "itzaleko artixtak aukerarik ez dute horrelako emanaldietarako eta jendearen esku jarri nahi izan da azpiegitura duina". Parte hartzeko aukera

nahi duen guztiari eman zaio, baina Aritzen hitzetan badira alor asko gaur Urbieta kalean izango ez direnak "agian lehen aldia delako eta jendeak hau zer den oso ondo ez dakielako". Gaurkoak

«Itzaleko artixtek aukerarik ez dute horrelako emanaldietarako eta jendearen esku jarri da azpiegitura»

jarraipenik izango ote duen galdetuta, "helburua hori ez da" erantzun digu hernaniarrak, baina ez du deskartatu ere egiten "niri ideia hau gustatzen zait eta zergatik ez". Gaurkoa nola ateratzen den ikusi beharko da lehenengo, lehen aldi honek zer arrakasta duen. ||

